

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Inazio Ugartetxea Milikua Fotero

*Markina-
Xemein,
Bizkaia (1943)*

Aurkibidea



Biografia



Zeharkalean jaio zen "Fotero" zestogilea. Okina zen amamarengandik jaso du ezizena. Aita ere okina zuen, eta tarteka lanbide horretan aritu arren gazterik hasi zen herriko zesta puntako pilotariek hain beharrezko zituen zestoak egiten. [Juan Gerebarrena "Larriñe"](#)k erakutsi zion dakien guztia. 17 urteaz Mallorcara (Balear uharteak) joan zen pilotari eta xesteragile bezala, 1964an Kanaria Handiara (Kanariar uharteak) eta beranduago Miamira (Florida, AEB). Gugaz egon zenean, erretiratuta egon arren, oraindik bere tallerrean gogotsu zebilen hurbileko pilotari batzuk egindako enkarguak egiten. Zesto bat pausuz pausu zelan egiten den erakutsi zigun.

Zintak

MAR-066

- **Proiektua:** Markina-Xemeingo ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2014-07-22
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. 'Fotero' ezizenaren jatorria

- **Erref:** MAR-066/002
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:00:48. **Bukatu:** 00:01:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

'Fotero' ezizenaren jatorria azaltzen du. Bere amamagandik jaso du familiak.

2. Zestogile Mallorcan, Miamin eta Markinan

- **Erref:** MAR-066/004
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:03:23. **Bukatu:** 00:06:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Umetan ez zuenez ikasi nahi, beharrean hasi zen. Zesta puntako zestoak egiten zituen zestogile batekin hasi zen lanbidea ikasten eta 17 urte gaz Mallorcara joan zen pilotari zein zesto-konpontzaile bezala. Aita gaixotzerakoan etxera bueltatu zen etxeko okindegian ere lagundu ahal izateko. Gerora, Miamira (AEB) joateko aukera izan zuen eta hiru urte egin zituen bertan.

3. Zestoaren saihetsak

- **Erref:** MAR-066/007
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:11:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Zestoaren saihetsak zelan lantzen eta jartzen diren azaltzen digu pasarte honetan. Gaztainondoa da erabilitako materiala, Donostialdetik ekartzen dute, Astigarragatik eta Usurbil aldetik batik batik. 13 saihets ditu zestoak. Zesto bat egiteko 20 ordu behar ditu.

4. Zestoaren saihetsei forma ematen

- **Erref:** MAR-066/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:11:47. **Bukatu:** 00:13:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egitekin diren erakutsi zigun grabazio honetan. Aurreko pasartearen saihetsak zelan jartzen diren azaldu zigun eta honetan forma zelan ematen zaion kontatzen digu.

5. Zestoa egiteko gaztaina eta zumitza

- **Erref:** MAR-066/010
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:15:47. **Bukatu:** 00:17:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Zestoa josteko zumitza Caceres aldetik ekartzen dute. Saihetsak egiteko gaztainondoaren egurra erabiltzen dute, hiru bat hilabetez izaten dituzte uretan landu aurretik.

6. Zestoaren saihetsak zelan egin

- **Erref:** MAR-066/011
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:21:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Zestoaren saihetsak egiteko gaztainondoaren egurra erabiltzen da. Saihetsak zelan egiten ziren azaltzen du eta horiek eskuz zelan gastatzen zituzten erakusten ditu antzinako eran. Gerora "zepilladora" erabiltzen zuten horretarako.

7. Zesoaren egitura

- **Erref:** MAR-066/013
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:21:23. **Bukatu:** 00:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Oker dagoen zesto baten egitura, lehen atala, zelan landu eta gastatu behar den erakusten digu. Zestogileak gizonezkoak izan dira batez ere; emakumeak zumitzarekin josten baino ez dira aritu.

8. Zestoaren neurriak

- **Erref:** MAR-066/015
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:25:24. **Bukatu:** 00:29:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k zesta puntarako zestoak zelan egiten diren erakutsi zigun grabazio honetan. Zestoaren neurriak garrantzia du eta kontuan hartu beharreko kontua da. Pilotarien izenak eta haien neurriak apuntatzen dituen taula bat erabiltzen du. Lehen zestalariek hilabetero aldatzen zuten zestoak; elkarrizketa garaian, oster, hiru hilabeterik behin-edo.

9. Zestogileak

- **Erref:** MAR-066/016
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:29:59. **Bukatu:** 00:32:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Hamalau bat zestogile zeuden lehen eta 70. hamarkadan beste 10 bat hasi ziren lanbide horretan. Baina zestalarien greba zela eta pilotari asko Euskal herrian geratu ziren eta lana jaitsi zitzairen. "Zestogileen batzarra" egiten zuten lehen.

10. Zesta puntarako plastikozko zestoak

- **Erref:** MAR-066/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:32:01. **Bukatu:** 00:33:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Elkarrizketa garaian Filipinetan plastikozko zestoa egiten hasiak ziren. Baina gaztainondoa beharrezkoa du zestoak azkartasuna izan dezan.

11. Zestorako eskularrua

- **Erref:** MAR-066/019
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:35:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Zesta puntako zestoan eskua sartzeko eskularrua zelako den erakusten digu pasarte honetan.

12. Apurtutako zestoa konpontzeko

- **Erref:** MAR-066/021
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Zesta puntako zestoak puntan hari beltza daroa, azpian duena tapatzeko. Eskularruak barrutik oihal berezi bat darama. Tailerrean konpontzeko duen zesto bat erakusten digu, nondik eta zelan apurtzen diren ikusteko.

13. Asteko hiru zesto egin eta kobratzeko arazorik ez

- **Erref:** MAR-066/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:38:55. **Bukatu:** 00:41:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Jose Inazio Ugartetxea 'Fotero'k hilabeteen zesta puntako 40 bat zesto egiten zituen bere tailerrean. Pertsonako astean hiru bat zesto zapatuetan ere lan eginez. Pilotariak diru asko irabazten zuen eta ez zuen izaten ordaintzeko arazorik. Lau hilabete eta erditan Markinan pisu bat erosteko beste irabazten zuten Ameriketean.

14. Atzelariak zesto gehiago apurtzen dituzte orokorrean

- **Erref:** MAR-066/023
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:41:18. **Bukatu:** 00:42:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Orokorrean zesta puntako atzelariak aurrelariak baino gehiago apurtzen dituzte zestoak, baina hori zestalariaren arabera dela dio.

15. Txistera eta zestoaren arteko ezberdintasuna

- **Erref:** MAR-066/025
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:42:13. **Bukatu:** 00:44:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Sekula ez du txisterarik egin, nahiz eta enkarguak bai jaso. 'Joko Garbia' izeneko jokorako txistera zesto txiki bat da; pilota arinagoa erabiltzen duten eta jokoa arinagoa da. Erremontekoa ere desberdina da; elkarrizketa garaian plastikozkoa erabiltzen hasiak ziren erremontean.

16. Ameriketako 17 frontoietatik zesto eskaera asko

- **Erref:** MAR-066/034
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:54:42. **Bukatu:** 00:57:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Ameriketan frontoi berriak zabaldu ahal zestogileen lana ere ugaritu egon zen. 17 frontoi egon ziren guztira. Euskal Herritik ere zesto asko eramaten zituzten hara. Pilotari bakoitzak hilabetero aldatzen zuen zestoa; elkarriketa garaian, ostera, hiru hilerik behin-edo. Enpresek ordaintzen zizkieten pilotariei zestoak.

17. Ameriketako beroa kaltegarria zestoentzat

- **Erref:** MAR-066/037
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:58:56. **Bukatu:** 00:59:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Ameriketan zesta puntako zestoak gehiago apurtzen dira Euskal Herrian baino. Izan ere, han bero handia dago eta horrek kalte egiten dio; Euskal Herriko hezetasuna ona da. Busti egin behar izaten dute gogortzeko. Zaharra dagoenean piko-pasak bezala biguntzen direla dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com